asmorik zeintzuk izan ziren juiziora joateko arrazoiak, eta ondorioz, abokatuei egin beharreko ordainketak. Halaber, ez dute baloratuko -ez zaiela tokatzen uste dutelako- epaiaren nondik norakoak. Horrela, auzo elkarteak gaur Udabalbatzari proposatzen dionaren inguruan uste dute Udalak ez dituela ordaindu behar elkartearen gastuak. Izan ere, lehenik eta behin, Juezak lehen zein bigarren auzialdiko epaitegietan ez zituen adierazi kostuak noren gain izango ziren, nolabait esatearren, galtzailearen aldeak bereganatu behar zituenik, kasu honetan udal funtzionarioak. Beraz, bada, ez dago kostuak noren gain izan behar dutenari buruzko adierazpenik. Bestalde, auzo elkarteak doako justiziaren onuraz balia ziteken, baldin eta mozioan esaten duten bezala, elkartearen baliabideak ez badira ordaindu beharrekoa ordaintzeko lain. Edonola ere, uste dute diru publikoa ez dela kontu hauetan erabili behar. Gainera, uste dute aurrekasu garrantzitsua jarriko luketela, hain zuzen aurrerantzean auziren bat izan dazakeen eta garaile aterako litzatekeen edozein herritarrek tokiko administraziora jo dezakeelako. Bestalde, ordea, auzo elkarteari ez zaiola ordaindu behar uste duten bezala, halaber pentsatzen dute funtzionarioari ez zitzaiola ordaindu behar. Euren ustez, ez du funtzionarioak bakarrik defendatzeko eskubidea, edozein herritarrek du. Hori horrela, Udal honek 1995ean erabaki bat hartu zuen, non hitzez hitz zera esaten baitzen: "udal langileek, euren

valorar cuales fueron los motivos y las actuaciones que dieron lugar al procedimiento judicial y al consiguiente pago de los honorarios de los letrados. Tampoco van a valorar -porque creen que no les compete- cuál es el sentido de la sentencia. Centrándose en lo que hoy propone la asociación de vecinos al Pleno, entienden que el Ayuntamiento no debe de correr con los gastos de la asociación. En primer lugar, porque el Juez, tanto de primera como de segunda instancia, no se posiciona en el sentido de que asuma las costas la parte derrotada por decirlo de alguna forma, en este caso el funcionario municipal; por lo tanto no hay posicionamiento en costas. En segundo lugar, porque la asociación de vecinos se podía haber acogido al beneficio de justicia gratuita si como dicen en la moción los recursos económicos de la misma no llegan para hacer frente al pago de la minuta. De todas formas, entienden que el dinero público no debe destinarse a estas cuestiones y que además sentaría un precedente importante de cara a cualquier ciudadano que tuviera un litigio con la administración local y resultara vencedor. Por otro lado, indica que si bien es cierto que considera que no hay que pagar a la asociación de vecinos, también es cierto que considera que no debía de haberse pagado al funcionario. Entiende que no sólo un funcionario tiene derecho a defenderse, lo tiene cualquier ciudadano. Continúa diciendo que en este Ayuntamiento se adoptó un acuerdo en el año 95, por el cual, y lee textualmente: "...Vista la

lanpostuko eginkizunak egiterakoan exiji dakioken erantzukizun kasuetan defentsa izan dezaten, Udala jabetuko da defentsa juridiko horretako gastuetaz". Eurek uste dute kasu hau ez dela hari egokitzen, baina bai, esaterako, auto-azpian harrapatuak izan ziren udaltzainei eta abarrei. Bestalde, hitz egiten ari diren funtzionarioak bere ohorea defendatzeko eskubide guztiak baditu ere, esan behar dute ez zela prozesatua izan, aitzitik erantzukizun zibila exijitu zen demanda bateko aktorea izan zela. Bere aburuz, erabaki hori, funtzionarioaren defentsa ordaintzekoa alegia, "ozta-oztakoa da". Bere taldearen ustez diru publikoa ez da horretarako ere, hori nork zuen arrazoia kontuan izan gabe. Bere aburuz, askozaz ere garbiagoa eta berme handiagokoa izango litzateke Udala bera kodemandatzaile gisa prozedura hartan azaldu izan balitz. Funtzionario bati abokatuaren gastuak ordaintzea jarduera partikular bat egitea bada, eta horregatik esaten du, auzo elkarteei zergatik ez. Edonola ere, uste dute erabaki hura "ozta-ozta" hartu izanak ez duela esan nahi gaur hemen auzo elkarteari baietza eman behar diotenik. Izan ere, kasu horretan beste herritarren batek Udala auzitan sartuko balu, baietz esan beharko litzatekeelako. Eta horrek Udalaren aurrekontuarentzat diru asko suposatuko luke, gaineratu du.

necesidad de que los empleados municipales dispongan de la preceptiva defensa en aquellos supuestos en los que se les pueda ser exigida una responsabilidad en virtud del ejercicio de las funciones propias de su puesto de trabajo, el Ayuntamiento correrá con los gastos de la defensa jurídica", respecto del cual entiende que este no es el caso que los ocupa, lo pudiera ser, por ejemplo, el caso de aquellos municipales que fueron atropellados, etc. Por un lado, si bien el funcionario del que están hablando tiene todo el derecho a defender su honor, no es menos cierto que no fue procesado; fue actor de una demanda en la que se exigió una responsabilidad civil. Entiende que ese acuerdo está "cogido muy por los pelos" para posibilitar pagar a este funcionario la defensa letrada. Su grupo considera que para eso tampoco está el dinero público, sin cuestionar quién tenía razón o no la tenía. Entiende que hubiera sido mucho más limpio y garantista que el propio Ayuntamiento se hubiera personado en ese procedimiento como codemandante si lo hubiera estimado conveniente. Ante el hecho de pagar la asistencia letrada al funcionario, en una actuación particular, es cuando la asociación de vecinos viene a decir que porque no se les abona a ellos. No obstante, que consideren que en aquel momento se cogiera ese acuerdo "por los pelos" no es óbice para que hoy a los vecinos se les diga que sí, porque en ese supuesto, cuando otro vecino venga a litigar con el Ayuntamiento habría que decirles

también que sí, lo que supondría una cantidad importante para el presupuesto del Ayuntamiento.

* EAko Burgos jaunak EAJ/PNVko eledunak eginiko adierazpen eta azalpenekin bat datorrela adierazi du.

* Interviene el Sr. Burgos (EA) y manifiesta que su grupo asume y comporta los planteamientos efectuados por la portavoz de EAJ/PNV.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, zenbait eledunek duten zalantzen aurrean berak ez du inolako dudarik. Bere ustez, zoritxarrez, badirudi edozein gauza esan eta dena doan ateratzen den gizarte mota batean bizi garela. Hau da, bateren batek, inolako frogarik gabe, jaurti dezake ahalik eta kalumniarik handiena, laido edo irainik handiena, sospetxarik handiena etab. Badirudi, dio, bizitza publikoan dagoen orok modurik naturalenean jasan behar duela irainik handiena, etab. eta gainera doan ateratzen zaiola. Egoera hori, osasun publikoa kontuan izanik, ez liteke permititu. Ez daiteke permititu, edozeinek, inolako probarik erakutsi gabe, edozein kalumnia esatea. Bere aburuz, horrelako egoeretan Udala ez liteke neutral edo ixilik geratu. Bestalde, EAJ/PNV-ko eledunak eginiko adierazpenekin hein batean bat dator, hau da, funtzionarioaren gastuak ordaintzeari dagokionean, baina oso ondo deritzo defendatu izana. Kontu hau juiziora eraman zen eta auzitegiak erabaki zuen Auzo Elkarteak edo haren eledunak ez zigortzea. Ez da ahaztu behar, dio, funtzionarioak ala-holako errua izan

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala, ante la actitud dubitativa de alguno de los portavoces, que él no tiene dudas. Cree que, por desgracia, viven en una sociedad en la que parece que vale todo y que todo sale gratis. Es decir, que se puede soltar la mayor calumnia, el mayor infundio, el mayor insulto, la mayor sospecha, etc. sin aportar ningún tipo de pruebas. Parece ser que, todo el que está en la vida pública tiene que asumir como algo natural que le planteen el mayor insulto, que le lancen la mayor sospecha, etc... y todo eso sale gratis. Es una situación, que por salud pública no se puede permitir. No puede ser que cualquiera levante la calumnia que le parezca oportuna sin aportar ninguna prueba. Ante esa situación cree que el Ayuntamiento no puede ser neutral ni puede estar callado. Añade que puede compartir en parte los planteamientos de la portavoz de EAJ/PNV en relación a que no sabe si fue de la forma más purista con la que se llevo a cabo el abono de los gastos del funcionario, pero, lo que sí cree es que hizo muy bien en defenderse. Añade que ha llevado a juicio este tema y en el juicio se

bazuen, demanda aurkezteko inolako oinarririk ez bazuen, juezak kostuak ordaintzera zigortuko zukeela. Baina ez zen horrelakorik gertatu, eta horrek esan nahi du, ezta Auzo Elkartearen eledunak errudunak zirenik, baina bere irudiko funtzionarioak prozedura hasteko arrazoiak zituen. Izan ere, gauza guztien gaineratik gizartean nahiko errotuta dauden ohitura txar horiek baztertu egin behar baitira, hain zuzen, zenbait herritarrek, inolako frogarik gabe, edozein gauza esateko eskubidea duela uste baitu. Gauza horiek guztiak kontuan izanik, eurek mozioaren aurka bozkatuko dute.

* Zárate jaunak (Auzo Elkartea) adierazi duenez, hemen azaldu diren bertsioek erakusten dute zinegotziek gaia ez dutela ezagutzen, izan ere, gertakariak demostratu baitaitezke. Gertakari horiek zera erakusten dute: herri honetako herritarrei hainbat urtetan Udalak sufriarazi diela. Esaten ari dena frogatzeko zera da: taberna jakin baten inguruan Udalarentzat dena zen legezkoa ahalik eta Arartekoak eta Aldundiak esku hartu zuten arte. Tabernari kategoria jaitxi zieten, eta horrek erakusten du ez zuela betetzen indarrean zegoen araudia. Horiek dira gertakariak eta ezin dira mozarrotu, gaineratu du. Tabernak ez zuen betetzen Udal honek eta

ha determinado que la asociación de vecinos o sus portavoces no sean sancionados. No hay que olvidar, continúa, que si el funcionario hubiera tenido una actitud temeraria, sin ninguna base para presentar la demanda, el Juez lo hubiera castigado al abono de las costas. Eso no ha pasado, lo que quiere decir que no consta como sentencia la culpabilidad de los portavoces de la asociación de vecinos, pero que sí tenía razones el funcionario para iniciar ese procedimiento. Pero, por encima de todo está el que se vayan erradicando esas costumbres nocivas en la sociedad en cuanto a que algunos ciudadanos se permitan decir, no importa qué, sin aportar la más mínima base que pruebe esas acusaciones. Ante todo ello su grupo va a votar en contra de la moción.

* A continuación interviene el Sr. Zárate (Asociación de Vecinos) e indica que las versiones que aquí se están vertiendo demuestran que desconocen el tema, ya que los hechos son demostrables. Esos hechos son que los vecinos de este pueblo han sido sometidos a sufrimiento durante años por este Ayuntamiento. Las pruebas de lo que dice están en que todo era legal en relación a un determinado bar hasta la intervención del Ararteko y la Diputación y que fue rebajado de categoría incumpliendo la normativa que en aquellos momentos estaba vigente. Los hechos están ahí y no se pueden disfrazar: el bar no cumplía la legalidad que este Ayuntamiento y el funcionario decían

funtzionarioak esaten zuten legea. Jarraian, gogoratu du 2001eko urtarrilaren 25eko Udaltzatzen osoko bilkuran Alkatetza-dekretuaren berri eman zela, udal funtzionarioak jar zezakeen kereila kriminalaren gastuez kargu egiten zena. Dekretuaren oinarritzen zen Auzo Elkarteak eta herritarrek argitara emandako idatzi batean oso akusazio larriak egiten zituzten udal funtzionario bati. Bertan baieztatzen zen funtzionarioak egindakoarekin hainbat aldiz salatua izan zen Bulevard establezimenduaren jabetza babesten zuela. Era berean, idatzi horretan bertan esaten zen Udalak babestu, toleratu, disimulatu eta barkatzen ziela hainbat ostalariri, horretarako bere arau propioak eta besteenak bortxatu behar izan bazituen ere. Ondoren, dekretuan zera esaten zen: "...kontuan izanik kronika horretan adierazitako kontzeptuak oso larriak direla, eta beraz, Udaltzatzen eta funtzionarioaren izen onari eta sinesgarritasunari seriozki erasotzen zaionez, eta udal funtzionarioak balizko agresioak jaso dituzenez, honek kereila kriminal bat idatzia egin duten arduradunen aurka tarteratzea erabaki du". Eta Alkatetzak gai horri buruz zera ebatzi zuen: Kargu egitea udal funtzionarioak tarteratu dezakeen kereila kriminalak sor ditzakeen gastuez". Kereila kriminal hori, dio, geroago funtzionario horren ohorea eta irudi profesional eskubide-urraketak bihurtu zuten. Horrezaz gain, behin Auzo Elkarteak probak aporteratuta -gaur hemen osoko bilkura honetan dauden lagun zenbait

que estaba cumpliendo. A continuación recuerda que en el Pleno celebrado el 25 de enero de 2001 se daba cuenta a la Corporación del Decreto de Alcaldía por el que se resolvía hacerse cargo de los gastos por la querrela criminal que pudiera llegar a interponer el funcionario municipal. Añade que la base de este decreto se sustentaba en que por parte de la asociación y vecinos se había publicado un escrito en el que se vertían acusaciones muy graves contra la persona del funcionario municipal, afirmando que éste protegía con su actuación pública la propiedad del establecimiento Boulevard que había sido objeto de numerosas denuncias, y en que, así mismo, el escrito decía que el Ayuntamiento amparaba, toleraba, disimulaba y perdonaba a determinados hosteleros aunque para ello hubiera tenido que violar normas propias y ajenas. Seguidamente señala que en el decreto se decía: "...Estimando que los conceptos que se vierten en dicho escrito son de la suficiente gravedad que atentan seriamente contra el buen nombre y la credibilidad de este Ayuntamiento y de su funcionario, como consecuencia de la supuesta agresión sufrida por el empleado municipal, éste ha decidido interponer querrela criminal contra los responsables del escrito" y resolvía la Alcaldía: "...hacerse cargo de los gastos que puedan originarse como consecuencia de la querrela criminal que interponga el funcionario municipal". Querrela criminal, dice, que posteriormente la reconvierten

lekukoak izan ziren eta Irunen ospaturiko juiziora joan zirenak- Juezak funtzionarioak tarteratutako demanda oso-osorik desestimatu zuen epaian, eta ondorioz, Auzo Elkarteak eta herritarrek absolbitu kargu guztietatik. Ondoren, funtzionarioak, epaiarekin ez zegoenez ados, errekurritu egin zuen, berriro Alkatetzak ebazpen baten bidez emaniko laguntza ekonomikoarekin. Errekurtsoa, 2005eko abenduaren 26koa, Auzitegi Probintzialak desestimatu zuen. Beraz, azken emaitza Auzo Elkarteak bi epaietatik libre geratu zenez, euren ustez nahiko argigarria da herritarrek dituzten eskubideei dagokionez, alegia, hauek ez dutela kritikatzeko eskubidea bakarrik, erakunde publikoen aurrean euren interesak defendatzeko baizik. Jarraian, eskertu dituzte eurekin bat egin duten auzo elkarteak, hau da, Alaberga, Beraun, Gabierrota, galtzaraborda, Gaztaño, Iztietak, Pontika eta Yancikoa. Halaber, eurekin harremanetan jarri ezin izan zuten baino bat zetozen gainontzeko guztiak. Ondoren, osoko bilkura honetara, alderdi politiko guztiek eurek aurkeztu dituzten mozioaren alde azal daitezkeen laguntza eske etorri direla, esan du. Bere aburuz, eurek absolbitzen zituzten bi epai izanagatik, gain punimendua pairatzen ari dira. Izan ere, hainbat eragozpen jasan behar izan dituzte urteak joan urteak etorri, hainbat salaketa aurkeztu. Aldundiak ere esku hartu zuen eta Legea ez zela betetzen demostratu zuen. Eta hemen oraindik eurek jotzen dituzte errudunak... Hau baldin bada herri

en vulneración del derecho al honor y a la imagen profesional de dicho funcionario. Continúa diciendo que una vez aportadas sus pruebas por la asociación -de lo que fueron testigos personas que se encuentran en este pleno y que acudieron a las sesiones del juicio celebrado en Irún- el Juez dictó una sentencia que desestimó íntegramente la demanda interpuesta por el funcionario y absolvió a la asociación y a los vecinos con todos los pronunciamientos favorables a ellos. Añade que, no conforme con esta sentencia fue recurrida por el funcionario con el apoyo económico por resolución, nuevamente, de Alcaldía. El recurso de fecha 26 de diciembre de 2005, fue desestimado por la Audiencia Provincial. El resultado final de las dos sentencias absolutorias para la asociación y vecinos, les parecen lo suficientemente esclarecedoras en cuanto al derecho de los ciudadanos, no sólo a la crítica, sino a la defensa de sus intereses ante las instituciones públicas. Seguidamente agradece su apoyo a las asociaciones de vecinos que se han solidarizado con ellos como la de Agustinas, Alaberga, Beraun, Gabierrota, galtzaraborda, Gaztaño, Iztietak, Pontika, Yanci, además de a otras que también los han apoyado pero con las que no han podido contactar. Para finalizar dice que han venido a este Pleno a pedir el apoyo de todos los grupos políticos a la moción que han presentado. Ellos, con dos sentencias absolutorias a su favor tienen un castigo añadido, ya que soportando las molestias, padeciendo

honek duen Udalbatza, dio, onartu beharko dute. Esaerak dioen modura: "Cada uno tiene lo que se merece", gaineratu du. Azkenik, beharbada, "horixe da merezi duguna" esanez amaitu du.

* Alkate Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, askotan bezala, gauzak nahasi egiten dira. Izan ere, taberna horrek arrazoia izan edo ez, zarataren aurkako neurriak hartu behar izanak edo ez, ez du zerikusirik funtzionarioa -aginduak bideratzen zituen- interes partikularrentzako lanean aritzearekin edo legearen aurkako ekintza egitearekin akusatzeak. Bere ustez, bi gauza ezberdin dira. Berak dioenez, inork ez du zalantzan ipini Boulevard taberna ez zegoela behar bezala intsonorizatua. Alabaina, horrek ez du esanahi espedientea berrikusteko funtzionarioa tabernako jabearen alde egiten zuela akusatzeko, saldu edo interes publikoen aurka jarduten zuela esateko. Horregatik, uste du hitz egin duen jaunak ezer berririk ez diela eman.

* Peña andreak (EAJ/PNV) nabardura bat egin nahi duela esan du, izan ere, eztabaida hasieran nor zen erruduna baloratzera ez zela sartuko esan du. Berak errespeto osoa dio bi epaiei. Auzo Elkarteak

años tras año, presentando denuncias, teniendo que intervenir la Diputación, demostrándose que no se cumple la Ley, son los que tienen toda la culpa de todo. Si esta es la Corporación que hay en este pueblo lo tendrán que aceptar; como dice el refrán: "Cada uno tiene lo que se merece", quizás se merecen esto.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) dice que como se hace muy frecuentemente, se mezclan las cosas, ya que el que esa actividad de bar, tuviera o no razón, tuviera o no tuviera que adoptar medidas correctoras contra los ruidos, nada tiene que ver con que el funcionario que instruía las instrucciones correspondientes estuviera trabajando para intereses particulares o haciendo acciones ilegales y premeditadas; son dos cuestiones diferentes. Nadie ha cuestionado en ningún momento que el bar Boulevard estuviera debidamente insonorizado o no. Esa es una cuestión que nada tiene que ver con que un funcionario encargado de supervisar el expediente estuviera de parte de la propiedad, estuviera recibiendo soborno o actuando en contra del interés público. Por tanto, considera que el señor que acaba de intervenir no les ha aportado nada nuevo.

* La Sra. Peña (EAJ/PNV) puntualiza que ya al inicio del debate ha dicho que no iba a entrar a valorar quien es culpable o no. Su más absoluto respeto a las dos sentencias. La asociación ha

absolbituta suertatu zen, eta alderdi politikoez ez dute inolako zalantzarik ipini. Bere alderdiari gaur juizioko kostuak ordaintzeko eskaria egiten diote. Ez da nork duen arrazoia zalantzan ipintzen, ezta auzira jotzeko arrazoia zein zen. Eta berriro dio: bere garaian Alkatetzak funtzionario bati ordaintzeko osoko bilkura bateko akordio bati "doi-doi" heldu izana, ez zaie nahiko arrazoi iruditzen gaur elkarteak eskatzen duena onartzeko. Gaur hona mozioan dirukontua ekarri da, eta bere alderdiak gai horri buruzko jarrera hartu du, gaineratu du.

* Maestro jaunak (EB-IU) Zárate jaunarengana (Auzo Elkarte) zuzenduz zera esan du: patetiko iruditzen zaiola interes partikularrak Auzo Elkartekokoekin nahastea, eta herri honetako gainontzeko herritarrek ere Udal honek duen jarreraren inguruan sartzea. Berak ez du hasi nahi zehazten bideratuta dagoen auzian, hots, Zárate jauna eta beste pertsona baten aurka jarritakoan, alabaina zalantza handiak ditu Auzo Elkartearen aurka hasi ote zen.

* Zárate jaunak (Auzo Elkarte) erantzun du esanez Maestro jauna (EB-IU) deskuidatuta dagoela, hain zuzen jardun honetan kaltetua ez delako Timoteo Zárate, baizik eta elkarteko beste pertsona bat. Berari

resultado absuelta y desde los grupos políticos en ningún momento se ha cuestionado. Lo que a su grupo se les ha presentado hoy es la solicitud de que se les pague los costes judiciales; nada sobre cuestionar quién tiene razón y ni tan siquiera sobre lo que dio lugar al litigio. Repite que el que en su momento se hiciera un decreto de Alcaldía en base a una interpretación "cogida por los pelos" de un acuerdo plenario para pagar la defensa del funcionario, no les parece justificación para que hoy se acepte la petición de la asociación. Lo que se ha traído aquí en la moción es el tema económico y es sobre lo que su grupo se ha posicionado.

* El Sr. Maestro (EB-IU) dirigiéndose al Sr. Zárate (Asociación de Vecinos) le manifiesta que lo que le parece patético es que mezcle sus intereses particulares con los intereses de la asociación de vecinos haciéndolos extensivos al resto de los ciudadanos de este municipio en lo referente a la actitud de este Ayuntamiento. Añade que no quiere entrar a precisar la causa que se ha abierto, en concreto contra el Sr. Zárate y contra otra persona, porque duda mucho que se haya hecho contra la asociación de vecinos.

* El Sr. Zárate (Asociación de Vecinos) responde al Sr. Maestro (EB-IU) que está equivocado ya que Timoteo Zárate no es el perjudicado en esta actuación sino que el afectado es otra persona miembro de

penagarri iruditzen zaio hemen eztabaidatzen ari dena, bestek beste, ez duelako uste arazoa ondo ulertu denik.

* Aretoan zegoen Murua jaunak zera adierazi du: Eak zein EAJ/PVVK planteamendu berdintsua egiten dutela, hau da, Udalak ez diezaiekeela dirurik eman partikularrei. Berak esan duenaren arabera, hasiera batean, Udalak Auzo Elkarteak lagunduko luke diruz. Gainera, uste du udal aurrekontuan Auzo Elkarteak sustatzeko partida bat dagoela. Hori horrela, EAJko ordezkariak Udalak 2001eko akordioa "doi-doia" hartu zuela aitatu duen bezala, uste du kasu honetan ere harrezakeela eta Auzo Elkarteak gastuak ordaindu. Bere irudiko hori izango litzateke irtenbidea. Bere ikuspuntutik arazo honen abiapuntua Udalak funtzionario bati ordaindu izana da, zeinak auzo elkarte bat auzitan sartu baitzuen. Jarduteko modu horrek esan nahi du auzo elkartearen zeregina baldintzaturik dagoela, izan ere, ez bazaie uzten kritika egitea eta adierazpen asakasuna baliatzea, hemen ezin izango zatekeen ezertxo ere egin eta denak kolore berinakoak izango ginateke, nabarmendu du. Alabaina, zorionez, hemen pentsamendu ezberdinetako jendea dago, gaineratu du. Beretzat, kontu honetako benetako arazoa zera da: Udalak gai honetan auzo elkarteak mozala jarri nahi diela udal kudeaketari buruzko kritikak eta balorazioak publiko egiten badituzte. Horretatik, uste du kontu hau Udalaren jokatzeko modu honek auzo elkarteentzat suposatzen

la asociación. Le parece lamentable que no se llegue a entender suficientemente lo que están tratando.

* Interviene el Sr. Murua, que se encuentra en la Sala de Plenos e indica que tanto por parte de EA y de EAJ/PNV existe el mismo planteamiento en el sentido de que el Ayuntamiento no puede subvencionar a particulares. Añade que, en principio, a quien el Ayuntamiento subvencionaría sería a las asociaciones de vecinos. Además, cree que en el presupuesto municipal hay una partida expresa destinada al fomento de las asociaciones de vecinos. A partir de ahí, lo mismo que el Ayuntamiento "cogió por los pelos" el acuerdo del 2001 que ha mencionado la representante del PNV, podría hacerlo también en este caso y abonar el gasto de la asociación de vecinos. Cree que esa sería la solución. Desde su punto de vista, el problema que se plantea aquí es la consecuencia que tiene el hecho de que el Ayuntamiento haya financiado a un funcionario -que es un particular- que ha presentado una demanda contra una asociación de vecinos, lo que supone que se está condicionando la labor de dichas asociaciones, porque si no se les deja hacer su labor de crítica y que hagan uso de la libre expresión, aquí no cabría nada y serían todos del mismo color, y afortunadamente aquí están gentes de pensamientos diferentes. Para él, el verdadero problema de este tema es que el Ayuntamiento parece que se está planteando poner una mordaza a las

duen ekonomi-larritasunean kokatu beharko litzakeela, besteak beste, horrek auzo elkarteek ezin dutela euren lana egin esan nahi duelako. Jarraian, bera ohartu den heinean, uste du zinegotzi zenbaitek oso garbi duela zer egin, baina beste batzuk zalantzak dituzte. Ondorioz, berari presakako erabaki bat hartu baino lehen, gaia ondo ezagutzeko epe bat hartzea eta irtenbide bat bilatzea gustatuko litzaioke.

Jendartean zegoen beste lagun batek hitz egin du, eta EAJri eta beste alderdiei zuzenduz, zera esan du: auzo elkarteek legez kanpoko egoerak ikusten badituzte salatu egin behar dituztela. Horrela, bere aburuz, Udalak onarturiko legez kanpoko jarduera batek eragin dizkio Auzo Elkarteari gastuak. Horregatik, zera galdetu du: ea aurrerantzean auzo elkarteek ezin izango duten salatu herrian eman litezkeen legez kanpoko jarduerak, hain zuzen horrek elkarteak arruinatuko lituzkeelako?. Bere irudiko, horrek suposatzen du auzo elkarteek ez dutela aukerarik izango Udalak egiten dituen obren eta bestelako gauzen jarraipena egiteko.

asociaciones de vecinos a la hora de hacer públicas sus críticas y valoraciones sobre la gestión municipal. Añade que el problema debería centrarse en el ahogo económico que supone este tipo de actuaciones del Ayuntamiento para las asociaciones de vecinos lo que, en consecuencia, supone que éstas no puedan desarrollar su trabajo. A continuación dice que, en base a las intervenciones que ha habido, parece que hay gente que tiene este tema muy claro y otra que tiene dudas al respecto, por lo que, y antes de que setome una decisión precipitada, le gustaría que se tomaran un plazo para que la gente conozca bien el tema y para intentar encontrar una solución.

* Interviene otra de las personas que se encuentran entre el público asistente al Pleno y dirigiéndose al PNV y al resto de los partidos indica que lo que tienen que hacer las asociaciones de vecinos cuando se dan situaciones ilegales es denunciarlas. Añade que una actuación ilegal aprobada por el Ayuntamiento es la que ha generado unos gastos a la asociación de vecinos, por lo que se pregunta si de ahora en adelante las asociaciones de vecinos no podrán denunciar ninguna situación ilegal que se de en el pueblo porque ello puede suponer la ruina económica de la asociación. Esto supone además, que las asociaciones de vecinos no van a tener la oportunidad de hacer seguimiento de las obras o de otras actuaciones del ayuntamiento.

* Alkate Merino jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ustetan terminoak nahasiz jarraitzen dute, izan ere, ez baitira legez kanpoko jardueraz edo jarraipen lanez hitz egiten ari. Funtzionario bati eginiko -inolako justifikaziorik gabeko- atake batez hitz egiten ari dira. Eta haren ondorioz, herritar partikular baten auzi-gastuak ez zaizkio ordaindu, besterik ez, esan du. Funtzionario bati ordaindu zaizkio auzia bere eginkizunen kontua zelako eta Udalak bere langileak defendatu behar dituela uste duelako. Auzo Elkarteak izan dituen gastuak bere gogoz eraginak dira, besteak beste, gasturik eragingo ez liokeen ofiziozko defentsa har zezakeelako. Aitzitik, defentsarako abokatu bat hartu zuen, baina hori elkarteak bere borondatez egin zuen. Eta berriro dio, orain eztabaidatzen ari dena ez dela auzo elkarteak bakarrik edo edozein herritarrek duen legez kanpoko zerbaiten aurka jotzeko eskubidea. Hemen udal funtzionario bati probarik gabe eginiko salaketaz, irainez, kalumniaz, etab.ez hitz egiten ari dira. Ez dute eztabaidatu Boulevard tabernak irekia edo itxia egon behar zuenaz; intsonorizatuta, bere kategoria ez dela egokiaz, eta abarrez.

Mintzaldiak amaitutakoan.

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que se siguen confundiendo los términos, ya que no están hablando de ninguna actuación ilegal ni de ninguna labor de seguimiento. Están hablando de un ataque no justificado a un funcionario. Continúa diciendo que no se ha abonado los gastos del juicio a un ciudadano particular. Se han abonado a un funcionario en el ejercicio de sus funciones, porque el Ayuntamiento estima que también hay que defender a sus trabajadores. La asociación de vecinos ha tenido unos gastos no por algo ajeno a su voluntad, ya que hubiera podido acogerse a la defensa de oficio lo que no les hubiera generado ningún gasto, sino porque decidió encargar su defensa a un abogado al que ha tenido que pagar. Pero, esa ha sido la voluntad de la asociación. Insiste en que de lo que se está discutiendo en estos momentos no es sobre la defensa que, no solo las asociaciones de vecinos sino cualquier ciudadano tiene derecho a hacer cuando estime que algo no se está haciendo de acuerdo a derecho, sino que están hablando sobre la denuncia sin pruebas, el insulto, la calumnia, etc. hacia un funcionario municipal. Que el bar Boulevard esté abierto o cerrado, que debiera insonorizarse o no, que su categoría fuera o no la adecuada, no ha sido en ningún momento objeto de este debate.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aurkako 16 botorekin (Merino, Acosta, Golmayo, Uribe, Insausti, Sánchez, Echarte, Astorga eta Oficialdegui (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), Burgos, Carcedo eta Méndez (EA), Peña, Arretxe eta Ormaetxea (EAJ/PNV), Maestro (EB-IU)), 2 abstentzioz (Peralta eta Bastos (PP) eta aldeko boto batekin (Legorburu jauna EB-IU),

E R A B A K I D U

- **EZESTE**A OIARSO Erdialdeko Auzo Elkarteak aurkeztu eta EA, PNV eta EB izenpeturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

7. Galdera eta eskariak.

* Peralta andreak (PP) Merino jaun alkateari (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) zera galdetu dio: prentsan deklarazio batzuk atera direnez, ea Beraun-Rentería enpresaren aurka azaltzeko asmorik baduen. Bestalde, gaur Alkateak PP alderdiko partaideak "teatrogiletzat" jotzen ditu, baina bestalde, zera esaten du: "... Pablo Sorozabal plazako garajeetako obra-esleipendun enpresak egindako kudeaketa txarra minimizatzen ahalegindu diren ordu guztiak galdu ondoren, Beraun-Rentería enpresak ez zituela aurrez ezarritako epeak bete, ezta zorrak ordaindu ere". Bere ustez, horrekin Alkateak errekonozitzen du egia zela berak esaten zuena. Jarraian, Alkateak

El Pleno de la Corporación, por mayoría, con 16 votos en contra, Sres., Merino, Acosta, Golmayo, Uribe, Insausti, Sánchez, Echarte, Astorga y Oficialdegui (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), Burgos, Carcedo y Méndez (EA), Peña, Arretxe y Ormaetxea (EAJ/PNV), Maestro (EB-IU); 2 abstenciones de las Sras., Peralta y Bastos (PP) y con el único voto favorable del Sr. Legorburu (EB-IU)

A C U E R D A

- **DESESTIMAR** la moción presentada por La Asociación de Vecinos del Centro OIARSO y suscrita por EA, PNV e IU, que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

7º.- Ruegos y Preguntas.

* Toma la palabra la Sra. Peralta (PP) y pregunta al Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ya que han aparecido unas declaraciones en la prensa, si va a personarse contra la empresa Beraun-Rentería. Por otro lado indica, que el Alcalde, hoy a los miembros de su grupo las acusa de peliculeras, pero por otro lado dice: "...Después de las muchísimas horas que han dedicado a intentar minimizar la mala gestión llevada a cabo por la empresa adjudicataria de las obras de los garajes de la Plaza Pablo Sorozabal, esta empresa, Beraun-Rentería, ni cumplió los plazos determinados, ni terminó las obras, ni abonó las deudas contraídas". Con ello, el Alcalde

berari teatrogile deitzen badio, berak "Colombo tenientea" deituko dio. Haatik, bere ustez, badago alderik: tenienteak "txori" guztiak harrapatu zituen, baina Alkateari honek ihes egin dio, eta 20 milioi pezeta utzi ditu zor Errenteriako herriak ordain ditzan. Ondoren, Alkateak eginiko idatzian ez duela egia osoa esaten nabarmendu du, izan ere, berak sekula ez baitu esan Beraun-Renteriak diru-funtsak bidegabekeriaz erabili dituenik. Berak esan du ustez -berak dituen agirien arabera eta Alkatearen esku daudenak- bertan azaltzen diren enpresa guztiek ez dute garajeak egiten lan egin. Berak ez du behinere ziurtatu. Are gehiago, Alkateak auzitegietara jotzeko esaten dio, eta berak aukera eskaintzen dio Alkateak Beraun-Rentería enpresaren aurka agertzeko. Alkateak enpresa hori ez duela aurkitzen esan dio. Aitzitik, berak esan diezaioke non dagoen, besteak beste, Bilbon enpresa bat duelako. Horrezaz gain, uste du -ez du ziurtatzen- Alkatearen alderdiaren ingurukoa dela. Argi eta garbi du, bestalde, obra-esleipendunaren ama Milagros Alvarez Novoa, Lazkaoko zinegotzi sozialista zela. Hori, frogatu daitekeelako, jendaurrean esaten du. Segidan, zera baieztatu du: "Beraz, bada, ez dut gezurrarik esaten, ezta pelikularik montatzen Alkate jauna. Nik zuri aukera ematen dizut -eta hementxe ditut agiriak zure esku- zu aurkez zaitezten. Jakin badakit ezetz esango didazula. Nik ez dakit kontua mugitzea interesatzen zaizun edo ez, baina nik esaten dut Errenteriako herritar

está reconociendo que es verdad. A continuación dice que si el Alcalde la llama a ella peliculera, ella a él lo llama Teniente Colombo, con la diferencia de que el teniente atrapaba todos los "pájaros" y al Alcalde éste se le ha marchado volando y ha dejado 20 millones de pesetas para que los pague el pueblo de Errenteria. Añade que el Alcalde en su escrito no dice la verdad, ya que ella no ha dicho en ningún momento que Beraun-Rentería haya malversado fondos. Lo que ha dicho es que presuntamente -según la documentación que ella tiene y que está a disposición del Alcalde- todas las empresas que aparecen en la misma no han trabajado en los garajes; en ningún momento lo ha asegurado. Es más, el Alcalde le dice a ella que vaya a los Tribunales, y ella le está dando la oportunidad de que se persone él contra la empresa Beraun-Rentería. El Alcalde le ha dicho que no encuentra a esta empresa. Ella le puede decir donde se encuentra, ya que tiene una empresa en Bilbao. Además, cree -no lo asegura- que es afín al partido del Alcalde. Lo que sí tiene claro es que la madre del adjudicatario de las obras era la concejal socialista Milagros Alvarez Novoa, de Lazkao. Lo dice públicamente porque se puede verificar. A continuación dice: "Por lo tanto, ni miento ni me monto películas Sr. Alcalde, le estoy dando la oportunidad -y aquí tengo la documentación para ponerla a su disposición- para que usted se persone. Ya sé que me va a decir que no. No sé si le interesa remover o

ororen esku ditudala agiri guztiak, jaso nahi duenaren esku daudela". Segidan, Alkatearengana zuzenduz, zera esan dio: "Zuk auzitegira joateko esan didazu. Baina, ni ez ninteke agertu. Niri dirua kostako zait. Baina, beharbada, zuk funtzionarioari bezala, kostuak ordaintzen badizkidazu, aurkez ninteke. Emaidazu zuk diru hori eta ni aurkeztuko naiz, eta gero ikusiko dugu deliturik baduen edo ez, esan du. Berak sekula ez du inor akusatu. Bakarrik agiri horiek iritsi zaizkiola esan du. Are gehiago, Alkate jauna: "hemen Beraun-Renteríaren kontutik beste toki batera joandako taloiak daude. Horregatik, Alkate jauna, mesedez, zu agertzeko eskatzen ari natzaizu", gaineratu du.

* Alkateak, Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), abiatuta daukaten ekintza berresten duela, esan du. Gainera, ikusiak ikusi, egunak joan egunak etorri, geroz eta ziurrago dago ongi egiten ari dela. Txorien inguruan esandakoa, uste du, ez zela kaioa izango. Jarraian, Mario Condek ere espetxean paperak aurkitu zituela, nabarmendu du. Eta hori aitatu nahi izan zuen artikuluan. Edonola ere, Peralta andrea (PP) ez duzu zertan larritu, esan du. Izan ere, pleno areto honetan, modu batean edo bestean, bileratan, etab... hainbat aldiz esan den moduan, aukera baldin badu, udal zerbitzu teknikoek aholkatzen badute, bera desiotan dago demanda aurkezteko. Berak dakien heinean Udal honetan inork ez du ezer

no el asunto. Y a todos los ciudadanos del pueblo de Errenteria hago llegar toda la documentación, que está a disposición de quien la quiera coger". Dirigiéndose al Alcalde dice: "Usted me ha dicho que me persone en el Juzgado. Mire usted, yo no puedo personarme. A mí me va a costar dinero. A lo mejor, si usted, como le ha hecho al funcionario, me paga los costes, me puedo presentar. Déme usted ese dinero que yo persono y, luego ya veremos si tienen delito o no. Yo nunca he acusado a nadie. Solo he dicho que a mí me ha llegado esta documentación. Es más, Sr. Alcalde, aquí hay talones de la cuenta de Beraun-Rentería que han ido a otros sitios. Sr. Alcalde, le estoy pidiendo por favor que se persone".

* El Alcalde, Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) dice que se ratifica en la acción que está llevando a cabo. Visto lo que está viendo, cada vez está más seguro de que lo que está haciendo lo está haciendo bien. Añade que pájaro, por cierto, no sería una gaviota. Continúa diciendo que Mario Conde también encontró los papeles en su celda, y es a lo que se refería en el artículo. En cualquier caso, la Sra. Peralta (PP) no tiene que preocuparse, ya que como se ha dicho en este mismo pleno, por activa y por pasiva, en reuniones, etc. que si hay causa, si hay oportunidad, y el asesoramiento de los servicios técnicos municipales es favorable, él está deseando presentarse y presentar la demanda. Nadie tiene nada en este

ezkutatzeko. Hori bai, kudeaketa txar bat egin dela ikusi dute, eta - beste zenbait ez bezala- saiatzen ari dira "platera hautsiak" konpontzen eta saiatzen enpresa pribatuaren kudeaketa txarra ahalik eta gutxien eragin dezan. Peralta andrea (PP) behin eta berriz saiatzen ari da kontu honetan zerikusirik ez duen gauzak nahasten. Bere aburuz, horixe da arazoa. Amaitzeko, zera esan dio:, "jarrai ezazu zure kudeaketa, zure dinamika, zure mirari zoragarriekin, ezen gero eta teatrogileagoa bihurtzen ari baitzara".

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, batzordeburuak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 9:55 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Ayuntamiento -que él sepa- que ocultar. Efectivamente ven que ha habido una mala gestión, y están -a diferencia de alguna- intentando recomponer los "platos rotos" y minimizar la mala gestión de una empresa privada. La Sra. Peralta (PP) está empeñada en salpicar a quien no tiene nada que ver. Ese es el problema. Añade: "Siga usted con su gestión, siga usted con su dinámica, siga usted con sus maravillas maravillosas, que cada vez está siendo más peliculera".

Finalizadas las intervenciones.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 9:55 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números _____ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.